

Arku tiraketako gune berria estreinatu da

Azken eguneratzea: Osteguna, 19 Uztaila 2018 10:11

Argitaratua: Osteguna, 19 Uztaila 2018 10:11



Kirol mota hau praktikatzeko espazio berri hau Salvatore auzoko gasolindegiaeren atzean egokitu du Udalak

Honela Igartza Arku Tiraketa Elkarteak Udalarekin duen hitzarmena dela eta bere espazio irekia egokia eta propioa izango du entrenamenduetarako

Udalak, Beasain Kirol Fundazioaren bitartez Igartza Arku Tiraketa elkarteak egin zuen eskaera bati erantzuna eman dio. Kirol mota hau praktikatzeko lekuaren berezitasunengatik ez da samurra aire librean ehun metroko luzera duen eremu zabal bat egokitzea. Hainbat toki aztertuta ondoren azkenik Salvatore auzoko gasolindegiaeren atze aldean dagoen lur saila aukeratu du Udalak.

Udalak bere gain hartu ditu lur eremu hau egokitzeko beharrezkoak ziren lanak. Honela, lehen sasiarte bat zena garbitu, zelaigune bihurtu eta zoladura baldintza egokietan jarri du kirol mota hau

Arku tiraketako gune berria estreinatu da

Azken eguneratzea: Osteguna, 19 Uztaila 2018 10:11

Argitaratua: Osteguna, 19 Uztaila 2018 10:11

praktikatu ahal izateko. Eremu guztia hesitu eta itxitura bat jarri da giltzatuta. Horrez gain, urbanizazio lan txiki bat egin da bertan etxetxo bat jarritz materiala gordetzeko eta sarrera lekua identifikatzen duen panel bat kokatu da.

Lan hauetarako egin den inbertsioa 9.700 eurokoa izan da. Beasaingo Udalak, Kirol Elkarteek euren jarduerak baldintza egokienetan aurrera eraman ahal izateko bitarteko guztiak jartzen jarraitzen du. Kasu honetan, Igarta Arku Tiraketa taldeak Beasaingo Udalarekin duen lankidetzak hitzarmenari esker gauzatu ahal izan da azpiegitura berri hau.

